

# BESTELAKO XEDAPENAK

## LEHENDAKARITZA

### 2876

*EBAZPENA, 2020ko uztailaren 8koa, Kanpo Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez ebazten baita Quebec eskualde estrategikoarekin 2020-2021erako lankidetza teknikoko proiektuak egiteko deialdia.*

Martxoaren 26ko 47/2019 Dekretuaren bidez, Bazkide Estrategikoen Sareko kanpoko eskualdeekin lankidetza teknikoan aritzeko proiektuetarako laguntzak arautu ziren.

Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiaren 2019ko abenduaren 17ko Ebazpenaren bidez, Quebec eskualde estrategikoarekin 2020-2021erako lankidetza teknikoko proiektuak egiteko laguntzen deialdia iragarri zen.

Deialdiari buruzko ebazpen horren 7. artikuluan izendatutako ebaluazio-batzordeak dirulaguntzak emateko proposamena egin du. Proposamen hori ikusirik, hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Kanpoan uztea I. eranskinetako zerrendan ageri diren erakundeek aurkeztutako eskaerak, eranskinetan bertan azaltzen diren arrazoiengatik.

Bigarrena.– II. eranskinetako zerrendan ageri diren erakundeei Quebec eskualde estrategikoarekin 2020-2021erako lankidetza teknikoko proiektuak egiteko laguntzak esleitzea. Eranskin horretan bertan zehazten da laguntzen zenbatekoa.

Hirugarrena.– Laguntzak ukatzea III. eranskinetako zerrendan ageri diren erakundeei, eranskinetan bertan azaltzen diren arrazoiengatik.

Laugarrena.– Ebazpen honek ez du administrazio-bidea amaitzen, eta, beronen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusian, hilabeteko epean, honako hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hala xedatzen baitu Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112. artikuluan eta hurrengoetan.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 8a.

Kanpo Harremanetarako zuzendaria,  
LEYRE MADARIAGA GANGOITI.

## I. ERANSKINA

## BAZTERTUTAKO ESKAERAK

Zk.	Erakundea	Proiektua	Baztertzeko arrazoa
3	Lenbur Fundazioa	El Museo como Actor de Sostenibilidad	Atzera egin du
12	Garaion Kooperatiba Elkarte Txikia	Zume Bizia-Bizi Bizia	Atzera egin du

## II. ERANSKINA

## ERAKUNDE ESLEIPENDUNAK

Zk.	Erakundea	Proiektuaren izena	Dirulaguntza
1	Elizaren Deustuko Unibertsitatea	¿Están aprovechando las empresas exportadoras vascas las oportunidades que ofrece la Región Estratégica de Quebec?	5.000
4	La Fundación SL	Proyecto Puentes 2020-2021	4.900
5	Lenbur Fundazioa	El Museo como Actor de Sostenibilidad	5.000
6	Sociedad Cultural RMO	Signal trouvé/seinala aurkitu da. 2020	5.000
7	Musikagileak Euskal Herriko Musikagileen Elkartea	Quebec&Euskadi 2020-2021: Euskal Sorkuntza Trukaketa	5.000
9	Azata SLU	Intercambio de Experiencias entre los ecosistemas de la investigación-acción en economía social de Quebec y Euskadi	5.000
10	Asociación Teinkart Elkartea para la investigación y la divulgación del arte y cultura	Urki, Uskui, Ushkuai, Uskuy paroles d'arbre	5.000
14	Kulunka Teatro SL	Kulunka Teatro en la feria de artes escénicas Rideau 2021	5.000

## III. ERANSKINA

## EZETSITAKO ESKAERAK

Zk.	Erakundea	Proiektua	Puntuak, guztira	Ezesteko arrazoa
2	Tacex Asesoría de Comercio Exterior SL	Proyecto de innovación-intercambio de conocimiento sobre seguridad del paciente y salud pública	30	Puntu gutxiegi (47/2019 Dekretuaren 10.3 art.)
8	Asociación del sector forestal-madera de Euskadi-Baskegur	Proyecto de innovación y de intercambio de conocimiento sobre la utilización de productos de origen biológico o renovable	40	Puntu gutxiegi (47/2019 Dekretuaren 10.3 art.)
11	Asociación de artistas Artitadeto	Frontière transfrontières pratiques frontalières du territoire	37	Puntu gutxiegi (47/2019 Dekretuaren 10.3 art.)
13	Trikileku SL	Euskadi-Quebec connection	30	Puntu gutxiegi (47/2019 Dekretuaren 10.3 art.)